

TXIRRINDULARITZAKO LORE BERRIAK

Abenduaren 8an, Beti Ondoko zelaietan Euskal Herriko ziklo kros-ari dagokion Challenge-a ospatu zen. Ermuko txirrindulari elkartearen eskutik. VI. edizioa izan da aurtengoa. Beti Ondon egiten ari diren lanen ondorioz, ohiko ibilbidea moldatu bazuten ere, proba bikainak ikusteko parada izan zen. Partaidetza ere goi mailakoa, David Seco haundia tartean. Ermuarrei dagokienez, partaide dextente izan ziren.

Kadete mailan, 3 ermuar daude taldean. Hirurek 7-8 urterekin ekin zioten txirrindularitzari. Julen Rosillok denboraldi polita burutu du. Lasterketa bat irabazteaz gain, postu onak lortu ditu. Bizkaiko ziklo-kros txapelketan hirugarren postua eskuratu berri du eta Euskadiko Ziklo-Kros Openean bigarren postuan da. Nestor Cordon, Igor Astarloaren alboan bizi da eta izugarri poztu da haren garaipenarekin. Denboraldiari dagokionez, *“ez dut zorte larregi izan. Ziklo-krosa gogorra izan arren, errepidea baino gehiago gustatzen zait”*, aipatzen du. Roberto Tesourok ere beste biak bezalaxe, 14 urte dauzka. Erlantz Uriarte eta Xabin Gallastegi ditu eredu. Postu politikak eskuratu ditu errepidean, 3. eta 4. postuak askotan lortuz. Horretarako, egunean bi ordu entrenatzen dituela dio.

Profesionalak eredu

Jubenil mailan beste lau txirrindulari gazte batzen dira. Guztiek 16 urte dituzte. Alex Alonsok hirugarren denboraldiz neguan, ziklo-krosa egitea erabaki du, *“errepidearekin osagarri egokia baita”*. Eskalatzaile ona dela aitortzen du nahiz eta *“ziklo-krosa horretarako arinegia izan”*. Jokin Barreña ere iritzi

berekoa da, *“errepidean lasterketak amaitu ezinda ibili naiz”* aitortzen du. Dabid Etxebarria du eredu eta apurka-apurka emaitzak hobetuko direla esaten du, nahiz eta etorkizunak esango duen.

Borja Rodriguezek ere ez du zorte larregi izan, *“denboraldi hasieran gaixo egon nintzen nahiz eta gero emaitza politikak lortu ditudan”*. Profesional maila amesten du nahiz eta Aitz Ortiz eta halakoen maila lortzeko gogor egin beharko duen lan. Kimetz Gandeta Mallabitarra da baina Ermuan bizi da. Denboraldia *“erdipurdiakoa”* izan dela aitortzen du. Mikel Praderaren pausoak jarraitu nahiko lituzke. *“Egunean 2-3 ordu eskaintzen dizkiot entrenatzeari eta ikasketekin bateratzen diren bitartean horrela segi beharko dut”*, aipatzen du.

Nagusi gutxi

23 urtetik beherakoen mailan, 2 ordezkari besterik ez dira. Gorka Mansok 19 urte ditu eta mountain-biketetik dator. *“Aurreneko denboraldia dut ziklo-kro-*

sean eta probatzen ari naiz nire burua. Mountain bikerekin alderatuz ziklo-krosa bizkorragoa da, ezin da hutsegiterik eduki”, azpimarratzen du. Julen Aranak 18 urte ditu. Errepide denboraldi polita burutu du. Mallabian garaipena lortzeaz gain, lasterketa gehienetan aurrekaldean egon baita. 5 urte daramatza ziklo-krosa negu partean egiten. Errepidea gehiago gustatu arren, prestakuntzan osagai ona dela dio. Denboraldi hasiera martxoan izango du eta erduei dagokienez bi izen aipatzen ditu Ulrich eta Jalabert.

Txirrindulariak bere lana egin zuten Beti Ondon baina ezin utzi aipatu gabe, lan isila egiten duten hainbat eta hainbat guraso, mekaniko, masailari... eta nola ez! entrenatzaileak. Lan horretan dabilta Galder Lasuen eta Jose Rodriguez *“Botero”*. Lan guztien begirale eta zaindaria lana egiten, hainbat urtez gure herriko txirrindularitzaren ikur nagusienetakoa den, Alberto Lasuen.

Asier Ibaibarriaga



EKINIZA

ESKOLAKO MATERIALEA.....

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA.....

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behea
48260 Ermua
© 943 17 47 44